




MIREN ZEBERIO ▶ MUSIKARIA

«Lagun batek zorientzean jakin nuen irabazi nuela»

BEKA ▶ 12.000 euro irabazi ditu XII. Nikanor Zabaleta lortuta

POZIK ▶ Musika ikasten jarraitu nahi du orain Utrecht-en ▶ 7



Miren Zeberio, herenegun, Hitzaren egoitzan. OLAIJA ESKITXABEL



NOELIA LATABURU

Abian da jada 37. Pala Txapelketa

TOLOSA ▶ Tolosa CF-k antolatuta du, eta hamabi bikotek eman dute izena lehiatzeko; zehaztuta daude jokatu beharreko partiduak ▶ 6

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO ASEGURUAK
- ETXEAK
- ISTRIPUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behean • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behean - 20400 Tolosa
Tel./Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behean - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

mariogerringo
Haur Hezkuntza

HAUR HEZKUNTZAKO ENPRESA BATEK
Lan-poltsa bat osatzeko, honako langile hauek behar ditu:

- Sukaldari-laguntzailea
- Garbitasunerako laguntzailea
- Hezitzaileak

Curriculumak Tolosako 289 postakutxara bidali

TOLOSA ▶

Herritarren Partaidetza Jardunaldiei babesa

30 bat lagun bildu dira iritzia ematen ▶ 7

MINUTU ERDIAN ▶

Zezen-plazaren mendeurreneko bideoa, kalean

GIZARTEA ▶ Astelehenean aurkeztu zuen Toros Tolosako Zezenak enpreak Tolosako zezen-plazaren mendeurreneko bideoa. 2003an hainbat ekitaldi burutu zituzten urtemuga hori behar bezala ospatzeko, zezen-plazarekin erlazioz ataturako alor desberdinetakoak: zezenketak, Inauteriak, herri kirolak, sanjoanak... Kultur Etxea jendez bete zen orduko irudiak ikusteko eta antolatzaileek —nahi zuten bezala— ezin izan zuten DVD bana banatu bildutakoan artean. Zezen-plazak «beste ehun urte betetzea eta herriko jendea horretan aritzea» espero dutela azaldu zuten ekitaldi horren bukaeran.

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Andaluzia



Aurreko asteburuan Iparraldean izan nintzen, Zuberoan. Euskal Herria zuzenean ekitaldiaren barruan bertotara joan ginen lau bertsolari emakume. Lau emakume bertsolari. Euskal Herriaren iparrera. Frantsek ulertu ez eta euskarak balio ez. Denak euskaldun, denak anaia eta arreba, baina hala ere ezin deus konprenitu. Ez genuen ederki pasa!

Orain Andaluzian nago. Oporretan. Malaga inguruko herri batean. Eguraldia bero eta barrua beroago. Gure *Hegoaldetik* Espainiako hegoaldera etorri naiz. Eguzki gose. Lasaitasun egarri. Hizkuntzarekin zerikusia duen detaile batek eman dit atentzioa. Harritu egin nau. Larritu.

Diglosia edo bi hizkuntzen arteko norgehia-

goka (elkarbizitza) gurean, Katalunia nahiz Galizian soilik gertatzen zen fenomenoa zela uste nuen. Andaluzian *castellano zerrau* delakoa entzungo nuen irudipena nuen, baina bai zera, hemen ere ingelesa da nagusi. Neguan sevillana eta zezenzale dira hemengoak, baina udan euroak ingelesez hobeto ulertzen duela sinistuta daude. Iragarki oro ingelesez. Nire gaztelania baldarreen ederki asko moldatuko nintzela sinistu nahi nuen, baina hemen ere interesak markatutako diglosia da nagusi. Zenbatekoa diru dosia, hainbestekoa da diglosia.

Pozik, harro eta gustura nabil halaber. Inork ez gaitu ulertzen eta inork ez digu ulertzen. Nahi dugunari buruz eta nahi dugunaren aurrean trankil demonio hitz egin dezakegu.

Etzi Marbellara joateko asmoa daukat. Tebistatik ikusi gabe ez naiz Espainian gertatzen denaren jakitun! Gabezia grabea inondik inora ere! Han ibiliko dira tebibistan agertzen diren asko, eta nik ere gertutik ezagutu nahi dut España profunda bertara *junda!*

TOLOSALDEKOHITZA.
INFO ▶

Herri kirolen etorkizuna nola ikusten duzu?

Herri kirol batzuk desagertu egingo dira, eta beste batzuk turismo erakusgarri moduan geldituko dira, kirol esanahia galduz eta erakusgai izaera hartuz. Urrezko Aizkora eta horrelako lehiaketek zenbata dituzte egunak.

AGIRRE ▶

Zer iritzi duzu Tolosako bidegorriaz?

Hau adar jotzea! Ikusi nuenean sinetsi ezinik, aizue! Are gehiago jatorrizko ibilbidea Agintari kaletik aurreikusia zegoela jakin nuenean. Baina, nori bururatu zaio horrelako artaburukeria? Tolosan ibiltzen al da udal gobernua? Inor ez dabil-eta txirrinuz Rondilla kalean; nola ibiliko da? Aventura nahi duenak baditu beste alternatiba batzuk, esate baterako, parapentea egin, Donostiara auzo joan edo Foru Aldundiko segurata batekin ligatu... ez dakit, ez zen beharrezkoa.

LOROÑO ▶

Nolako Tolosa nahi duzu aurrerantzean?

Ados nago eskualde osoari begira merkatalgunea behar dela dioten horiekin; gure herriko giroa desagertuz doa gazteok ez dugulako alternatibarik Tolosan. Zinemara, bolotan aritzera, lagunekin egotera, erosketak egitera... Hori guztia egiteko Urbil edo Garbera merkatal zentroetara joan behar dugu. Nire ustez merkatalgune batek bizi handia emango lioke herriari eta gazteok zeregina izango genuke asteburuetan.

TOLOXA ▶

ASTEKO IRUDIA ▶



IRATXE ETXEBESTE

Martin Lopetegi zortzigarren Montmeloko moto lasterketan

Martin Lopetegi irurarra zortzigarren izan da Montmeloko 24 Orutako moto lasterketan, bere taldearekin batera. Zirkuitoari 686 itzuli emanda lortu zuten postu horretan sailkatzea Lopetegik eta bere kideek, 3.500 bat kilometro eginda, eta gustura dago Irurako egindakoarekin. Stopstok mailan, hirugarren amaitu zuten, eta

podiumera igotzeko aukera izan zuten —argazkian—. Espainiako Erresistentzia Txapelketan bigarren lekuan geratu ziren, txapeldunetatik bost puntura baino ez. Mekaniko lanetan Mikel Zabaleta ibartarra izan zuen lagun Lopetegik. Erresistentziako probak amaituta, abiadurekoei ekingo die irurarrak aurrerantzean. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

HITZA guztietan prezio berean

INKESTA ▶ Zer iritzi duzu Tolosako bidegorriari buruz?

AMAIA ORMAETXEA
OLABERRIA



«Guretzat, den-dariontzat, kalte-garria da, orde-nagailuekin bate-ra eta bestera ibi-li behar dugulako eta apar-katzeko arazoak izaten ditu-gulako. Lanerako autoa beh-ar izaten dugunoi ez digu batere mesederik egin bide-gorria jarri izanak, batez ere Rondilla kalean, arazo han-diak sortzen ditu eta».

IDOIA GOIKOETXEA
GAZTELU



«Banatzaileek ta-bernan deskar-gak egiterakoan arazo handiak izaten dituztela esaten dute. Niri ondo irudi-zen zait bidegorria jarri izana, eta alabari izugarriko ilusioa egin dio; hala ere, ez dut uste bizikletazaleengan erabateko eragina izan due-nik, oraindik ere batzuk erre-pidean ibiltzen direlako».

JOSE F. ARANZEGI
TOLOSA



«Bizikletan ibil-tzen naiz, eta me-sede egiten dit niri; beste ba-tzuei, ordea, ara-zoak sortzen dizkie, eta han-dienak Rondilla kalean izan-ten dira, alde batean autoak aparkatuta daudelako eta bestean zutabeak. Kamioie-tako gidariak ezin izaten dute behar bezala lana egin; la-runbatetan, adibidez».

MANUEL ARTANO
TOLOSA



«Bidegorriaren aldekoa naiz, bai-na beste modu batera egin zite-keen. Agintari ka-lean jartzekoak ziren hasie-ran, hori entzun dut, behin-tzat, eta modu horretara bidegorriak ez lioke inori oz-toporik eragingo. Jarri behar da bizikleta zaleentzako toki egokia, baina inori kalterik egin gabe».

UNAI ARROYO
TOLOSA



«Bizikletaz ibil-tzen naiz sarri-tan, eta jarri zute-netik bidegorria-ren erabiltzaile ere banaiz; niretzat mesede besterik ez du egiten. Astean bitan edo hirutan erabiltzen dut bidegorria, eta uste dut dagoenetik jende gehiago ibiltzen dela herrian zehar bizikletaz; ohitura sortu du, nolabait».

ESANA ▶



JUAN M. ERASUN
AIZKOLARIA ETA SEGALARIA

«6-7 minutuko aldea ateratzen badit Olasagastik aizkoran, segan buelta emateko aukera dut»

DATUA ▶

3.059

parte-hartzaile.
Tropela.net webguneak antolatutako duen Frantziako Tourraren porran parte-hartzaile kopuru hori izan da azkenean. Zarautzeko lagun talde batek kirola eta euskara uztartzeko sortutako ekimen berriak 200 partaidea izatea zuen helburu hasiera batean. Babesa ikusita, 1.500era igo zuten helburu hori eta azken kopuru horren bikoitza gainditu du. Hauetako asko Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak dira. Egunez egun puntuazio bat lortzen dute parte-hartzaileek Tourreko etaparen emaitzaren arabera, eta azkenean sari ederrak izango dituzte. HITZA ekimen honen babesleetak bat izan da.

GUTUN@K ▶

Iraultza Bolivian

Boliviako iraultza inspirazio moduko bat da mundu osoko langile eta gazteentzat. Azken asteetan etapa erabakigarri batetara iritsi da. Masak altxatu egin dira. Langile eta nekazariak La Paz eta El Alto erdiguneetako kale eta plazak hartu dituzte. Meatzariak ukabiletan dinamita daramatela doaz. Milaka nekazari hiriburura zuzendu dira. Armada eta polizia ez dira gai egoera kontrolpean hartzeko. Carlos Mesa gobernu buru gorrotatua kargua uztera beharturik ikusi da. Parlamentua airean zintzilikaturik aurkitzen da. Boterea kaleetara igaro da.

Klase agintari boliviarrak mugiezinez eta indarrak gabe aurkitzen da masa mugimendu indartsuaren aurrean. Klase agintariaren etsipena eta indargabetasuna oligarkiaren zenbait sektorek herrialdea zatitzeko azaldu duten ahaleginetan ikusi da. Santa Cruz inguruko ekialdeko probintzia aberatsak La Paz eta El Alto inguratzen duten mendebaldeko probintzia iraultzaileen netatik banatzeko ahaleginetan alegia. Ekintza honekin, ustel-durik dagoen oligarkiak berak onartzen du bere porrota guda bera hasterako ere. Badaki ezin diela masei porrot erabakigarri-rik eragin ere zuzen batean hauei aurre eginez.

Klase agintariko sektore batzuek Bolivia bitan zatitzeko erakutsi duten ahalegin edo nahi horrek heuren bankarrotako osoa erakusten du. Beraien botere eta pribilegioak etsi-etsian defenditzeko saiakera horretan, parasito erreakzionario hauek Bolivia bera ere suntsitzeko prest egongo lirarteke. Azken finean hori da hauen *patriotismoaren* funtsa. Hego Ameriketako oligarkia guztien moduan, hauek ere heuren herriari odola xurgatuz gizen duen bampiro eta inperialismoaren agente dira.

Boliviako krisia oligarkiaren eta inperialismoaren errua da osotasunean, oso hipokrita izango litzateke erru hau altxatutako masei egotea, gizartearen ordena apurtu dutela argudiatuz. Kapitalismo boliviarraren irteerarik gabeko bidea islatzen du erabat, biztanleriaren oinarriko beharrak asetzeko gaitasun eza alegia. Mugimendu iraultzailea ez da kaosaren arrazoia, kaosarekin amaitzeko eta gizarte mota berri bat eraikitzeko saiakera bat baizik. Lurjabeek eta kapitalistek Bolivia hondatu dute eta potentzialki aberatsa den herrialde bat pobreziaraino eraman. Aurrerapena ezinezkoa da nazioaren aberastasunak gaizkile hauen eskuetan dirauen bitartean.

Krisi hau ez da krisi politiko episodiko bat soilik. Hau ezin da gobernu aldatze batekin, gobernu berri batekin, ministroen aldaketa batekin, ezta hauteskunde berri batzuekin edota asanblada konstituziogilearen ere amaitu. Sistemaren krisia da, gizartearen oinarriko al-daketa batekin soilik amaitu daitekeena. Herria jada ez da goikoez fidatzen, argi eta garbi ikusi baitute herri asanbladak eta kabilde iraultzaileak sortu arte ez dela demokraziarik egon Bolivian. Ez dute berriro ere onartuko burgesiaren eta sozialdemokraziaren traiziorik, esperientziatik ikasi dute. Botere hartzeko aukerak izan dituzte masa boliviarrak, baina benetako zuzendaritza iraultzaile baten faltak boterea berriro ere parlamentarismoari ematera bultzatu zituen duela bi urte, gobernu berriaren esperantzarerekin, eta azken finean burgesiaren beste agente bat boterean ezarri, maskara ezberdinarekin bada ere.

Akatsak burutzeko gizatiarra da, baina akats bera berriz errepikatzea latza izango litzateke, batez ere masentzat. Horregatik idatzi dituzte oraingoan heuren

banderan parlamentarismo burges ustelaren aurkako kontsignak eta herri eta langileen boterearen aldekoak langile eta nekazariak.

Iraultza boliviarraren indar garrantzitsuen langile klasea eta bere aliatu naturalak dira, nekazariak eta hirietako masa txiroek osatzen dutena. Hemezortzi hilabetetako borrokal-dian zehar —2003ko udazkene-tik— masa boliviarrak borroka-rako izpiritua, ausardia eta kla-se kontzientzia erakutsi dute. Hementxe dago langile klaseak gizarte aldatzeko ahalmena auzitan jartzen zuten esperantzarik gabekoentzat, koldar eszeptikoentzat eta zinkoentzat behin betiko erantzun Hemen-txe iraultza sozialista XXI. men-dean eman ezin zitekeela uste zuten horientzat erantzuna!

IBON ARTOLA ETA MANU
ODRIOZOLA ▶ ANOETA

Edurneri

Iritsi zineten Udaleria alkatetza lapurtuta eta mendekua aitortuta. Iritsi zineten zuok, kazikeok, herria zuen eskuetan edukitzea besterik onartzen ez duzuenok. Ideologiarik gabe, herri interesik gabe. Iritsi zineten, eta herriko taberna zure dekretu baten bidez itxi, bertako 4 langile kalean utzita, zuen gustukoak ez zirelako. Iritsi zineten, eta haur-tzaindegi zerbitzuarekin ere bukatu zenuten, bertako langilea Belauntzako Sustraiak plataformaren zinegotzia zelako.

Iritsi zinetenetik ia bi urte pasata, biek —herriko taberna eta haurtzaindegi— itxita jarraitzen dute, nahiago duzelako horrela mantentzea zuen inguruko ez den pertsona bat hartu baino. Horregatik, herriko taberna kudeatzeko egindako lehiketan baldintzak betetzen zizuten bi eskaintza atzera bota zizuten. Iritsi zineten eta Mariano zinegotziaren alaba —beste de-

kretazo baten bidez— Bake Epategiko idazkari izendatu zenuten. Eta zuk, alkateak, lana utzi eta herriaren kontura bizitzea erabaki zenuten. Herriarren alde horrenbeste esfortzu eta sufrikario joaten espezialista diru gutxi irabazten zenuela pentsatu eta soldata igo duzu berriki. 1.000 euro garbi hilerio egunean 4 ordugatik. Eguneko balizko 4 ordu horiez beste egun batean hitz egingo dugu.

Eta bi emakume kolpatzeagatik zigortutako zuen kide den Iñigo Olano «akoso eta irain» kanpaina jasaten ari zela-eta (orain zure kasuan bezala, zuk diozunez), Udalaren babes soziala (?), juridiko eta ekonomikoa ematea erabaki zenuten. Nonbait, noizbait egon beharko bi emakume kolpatzen duen gizonetako ausarta babestuko duen udal bat. Hori Belauntzan gertatu da.

Eta zure senarra *Litri*, etxe-tara eta lantokietara jendea mehatxatzen joaten espezialista dena —nahiz eta haurrak aurrean egon—; Manu espetxean hil ez izanaz tristetzen dena —bere esanetan— (pikoloen azken kontrolean hitz berak aditu behar izan genituen). Eta abar, eta abar, eta abar.

Zuen gustuko ez diren herritar-rrak gulag batetara masiboki deportatzea besterik ez zaizue falta. Orain, bat-batean, zein eta Edurne alkatea biktimitismoa saldu nahian azaltzen zaigu, gure herri plataformak ilegalizatu zutela ospatzeko brindisa egin zuen berbera. Edo alkatetza lapurtzean «orain enteratuko zarete, orain gurea da» irribarrez bota zigan Edurne berbera.

Azkenik, gure gain hartzen dugu pertsona bati esan dakiokeen irainik iraingarriena: txibato. Bai, onartzen dugu *Litri* zure senarrari behin baino gehiagotan hitz hori aurpegira esana. Eta berak badaki zergatik.

ITZIAR ARRATIBEL ▶ BELAUNTZAKO
SUSTRAIAK

GAZTELU X ZINEMA

Maitatzen hasteko prest

Ainere Tolosa zizurkildarra eta Mikel Losada ermuarra hasi dira 'Kutsidazu bidea, Ixabel' filmeko entseguetara; eskualdean bertan, Gaztelun grabatuko dute filma uztailearen 18tik aurrera, zortzi astez



Uztailearen 18an hasiko da grabaketa Gaztelun; zortzi astez luzatuko da filmaketa; argazkian, Ainere Tolosa eta Mikel Losada, Gaztelun. JON URIBE/ARGAZKI PRESS

AINARA GOROSTIZU / BERRIA

Oraindik ozta-ozta ezagutzen dute elkar, baina badaukite elkarrekin maitatzen direla. Elkarrekin maitatzen direla behar dutela. Gidoiak hala eskatzen duelako. Ainere Tolosaren (Zuzuki, 1979) eta Mikel Losadaren (Ermua, 1978) arteko maitasun istorioa idatzita dago. Ixabel baserritararena eta Juan Martin eskualdean bertan zuzurkildarra berritaren izango da. *Kutsidazu bi-*

idea, Ixabel-ekoena. Bi aktoreak, zinemagintzan aktore nabiki berriak biak, hasi dira filmeko lehen entseguak egiten, berrin arteko maitasuna entseuzten. Losadak filmari esker izango du Juan Martin eskualdean bertan berritaren lehen hartu emana. «Liburua irakurri gabea nuen, eta antzerkia ikusteko aukerarik ere ez nuen izan». Tolosak, ostera, ezin hobeto ezagutzen du Ixabel. Gorringo taldeare-

Denok aktore abuztuan

Berez egun handia izango da abuztuaren 18a. Gaztelun berriko jaiak ospatzen baitira. Baina aurretik bereziak izango dira festak. 1978. urteko festaren tankera izango dute. Franco hil eta handik hiru urtera ospaturikoak. *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmeko hainbat pasarte filmatuko dituzte

egun horretan, filmean festak baitira bezala. Nahi duen guztiak izango du aktore izateko aukera, festetan parte hartzen duen herritarren gisa. Bere burua pantalana handian ikusi nahi duenarentzat aukera aparta. Horretarako, 70. hamarkada amateariko esitiora jantzi joatea eskatu dute. «Antzerki-

kin Euskal Herri osoko antzekietan jokatu du haren rola. «Baserrit gero herrietan edo eskualde berrien aurrean, publiko oso zabalearengana iritsi gara. Hasieran lehen eguneko emanaldia salbatzea zen asmoa, eta pikkanaka-pikkanaka konturatu ginen antzerki guztiak betetzen gertatuela eta jendeak maio egiten zuela txalo». Baina antzerkiko Ixabelek eta filmekoak desberdintasun upari izango dituzte. «Antzerki-



Ermuarra eta zizurkildarra zinemaren gubi aktore dira. JON URIBE/ARGAZKI PRESS

AKTOREAK X



Bi aktoreak Gaztelun. JON URIBE

koa inuzente samarra zen, eta filmeko ez da hainbeste izango. Pelikulak baserritar gaztaren nortasunaren sakontzeko aukera emango du, eta guztia gaiterik, neska alai bat ezagutarazko da. Losadari bere pertsonaia «oso jatorra» iruditzen zait. «Beidurtia da eta nahi tozkoa, gauza askotan nire antzekoa, oso pertsonaia polita». Gorringorekin egindako lanaren ostean etorri zaito Zuzurkildarra filmea Ixabel egiteko aukera, eta Ermu-koak casting baten ondoren eskuratu nuen papera. Bien kasuan euskarak garrantzi handia izan zuten. Ixabelek profila neska gazte lihoiari bat eskatzen zait. Herrialdeko euskara inolako arazorik gabe erabiltzeko aukera izango duen aktore bat behar zuten; eta eskualde berritaren kasuan, giro erdalduagoko bat aukeratu dute. «Gure etxean ez da euskararik egiten, eta orain Madrilen nabiltzen, han ez dute horretarako aukerarik.

Ainere Tolosa. Zuzurkildarra jaiotzen 1979an. Gorringorekin eginko obra zen antzerkian profesionalki egin zuen lehena. Ondoren telebistan egin du lan, Wazemanken art da azal honetarako aurrera. Lehena filma du hau.

Mikel Losada. Ermuan sortu zen 1978an. Madril artu da orain arte *La tempestad* antzerkian, *Ur konpainiarekin*. Telebistan *Quentame* eta *Goenkale* egin ditu eta, zinematik, *El coche de pedales*, Ramon Barearekin.

Aventura berriak
Joxean Sagastizabalek idatzitako eleberrietan eta antzerkietan aldean bertikuntzak izango ditu pelikulak. Desberdintasun handiena Ixabelek herrian izango duen maitasun istorioa izango da. «Horrek gauzak konparatuko ditu». Tolosaren arabera: «Maitasun zirkulu baten erdian egongo da Ixabel, eta nahi gabe maitatzen duen eta txera etortzen den appollo berriarekin».

Sagastizabalek berak. Nagore Aranburuk eta Karlos Zaballak idatzitako gidok dakarren beste bertikuntza nagusia transtizio garaiko lehen urteetako giroak izango duen garrantzia da. Filma 1978an egongo da girutan. Aktoreek

obrarekin, eta geuk ere oso ondo pasatu dugu horretan. Losadak dio gidoia irakurtzen bakarrik «iragaritzeko barre-ako egin dituela. Komedia izaki, pelikula filmatzen Gaztelun egin behar dituzten zortzi elan aste gogorrak» eraman garrantzi-koak egingo zaitzela diote.

Zinemaren gutzitlan arituak

Berri arteko maitasun istorioa eta transtizio garaiko maitasun kutsu errealistarekin interpretatzen izango dira aktoreentzat bertikuntza handienak. Hasi bertikali baitira zinematik. REC, Orto Produktzioak eta Tentazio elkizgintzaren eginko film hau zinemagintzan egingo duen lehena izango da Tolosarentzat. Eta Losadarentzat bigarrena. Ramon Barearekin *El coche de pedales* filmaren egin zuen lan. Oraingo honetan aktore nagusi izatea «iluso bantzen baina zama txiki bat bezala» ikusten du. Tolosarentzat oso pertsonaia ezaguna da, eta hain ezaguna izateak apur bat belduritzen nau.

Antzerki mundutik dator bi aktoreak. Tolosaren kasuan *Kutsidazu* izan da profesionalki egin duen lehena. Baina ondoren telebistan aritu da. Orain, datorren astelehenetik 21En ikusi ahal izango den *Wazemank* umorezko saio berriaren art da lanetan. Losada Madril dabil. Ur konpainiarekin *La tempestad* taularatzen. Telebistan ere egin du lan, *Goenkale* eta *Quentame* komedia pasate-lesletan. Urtarrilaren 18an Mireia Gabillon eta Fernando Bermusezen zuzendartzepean filmatzen eta elkarrekin maitatzen hasi baino lehen, jantziak, makillajea eta ile arain-degiko lanekin artu dira orain. Da gidoia idazten.

GALTZAUNDI X



Aldizkaria. Galtzaundi. **Zenbakia.** 217.a. **Orrialdeak.** 28. **Tirada.** 5.000 ale. **Gai nagusia.** Galtzeak. **Beste gaiak.** Rokolodromoa Belaurtzan; San Joanak; Tolosako babarruna; Berastegirik bangoa... **Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea. **Argitaratzearen data.** Nafarroa etorbidea 6, behe (Tolosa). **943 65 50 04** **ere deskonozko@galtzaundi.com** **www.galtzaundi.com**

AIURRI X



Aldizkaria. Aiurri. **Zenbakia.** 238.a. **Orrialdeak.** 24. **Tirada.** 2.500 ale. **Gai nagusia.** Eraso eta Olasagastiren arteko apustua. **Beste gaiak.** Julen Zelarain; Santamariño jaiak; San Joan suak; herriko festak; Larraulo ostalua; babes ofizialeko etabek Wilabonan... **Argitaratzailea.** Manuel Larraimendi kultur bazkua. **943 69 64 50** **aiurri@topagunea.com** **www.aiurri.com**

Benidorm + Terra Mitica	285€
Salou	375€
Tenerife	337€
Paris	279€
633€	

EROSKI BIDAIEK

UDA HONETAN JANTZI EZAZU HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Entseguen artean, 18. 1943 65 50 04

TOLOSAN

VILLABONA ▶

9. Garagardo Azoka egingo dute datorren asteburuan

Uztailaren 14tik 17ra izango da; lortutakoa Irrintzi elkarteari laguntza emateko da

ERREDAKZIOA

Ohitura handiena duenetako garagardo azoka, Villabonako, alegia, hastear da. Hilaren 14tik 17ra izango da Irrintzi elkarteak antolatuta, eta 18:00etatik 01:00etara egongo da zabalik, mota askotako garagardoz eta jakiz gozatzeko aukera izango delarik.

Irrintzi elkartearen ekitaldiak aurrera eman ahal izateko erabiliko dute lortutako diru kopurua; hain justu, datorren urtean 25. urteurrena ospatuko du elkarteak, eta ekitaldi ugari prestatzeko asmo azaldu du urtean zehar.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLAK ▶

Abian da Tolosa CF-k antolaturiko 37. Paleta Txapelketa

Partidak Berazubiko pilotalekuan jokatu dituzte; guztira hamabi bikotek eman dute izena txapelketan lehiatzeko



Ostiral arratsaldean ere jokatu zituzten hiru norgehiagoka Berazubiko pilotalekuan. N. LALATABURU

NOELIA LATABURU

Pasa den ostegunean hasi zen Tolosa CF-k antolatutako 37. Paleta Txapelketa; gomazko pilotarekin jokatzekoa. Guztira hamabi bikotek eman dute izena eta bi multzotan banatu dituzte. Ligaxka jokatu eta multzo bakoitzeko bi lehenak uztailaren 27an izango diren finalerdietara pasatuko dira; finala, berriz, hilaren 29an izango da.

Izena eman duten bikoteak honakoak dira: A taldean, Lontxo-Nazabal, Zabaleta-Urdanpilleta, Balerdi-Artola, Sarasua-Txapartegi, Eizmendi-Arandia eta Bengoa-Bengoetxea; B taldean, Apeztegia-Maiza, Goitia-Otermin, Yugerros-Aldazabal, Landa-Huegun, Lankuntza-Agote eta Agirre-Egilaz.

Kirolariek arau batzuk bete beharko dituzte: ligaxka sistema erabiliko da, bi talde bakoitzeko bi lehenak finalerdietarako sailkatuko direlarik. Bestalde, berdinketa izanez gero lehenagotik berdinduta dauden bikoteen arteko emaitzak hartuko dira aintzat. Horrekin nahikoa ez balitz, tanteo orokorak hartuko dira kontuan. Partiduak atzerazinak izango dira, eta atzeratzeko arrazoi bakarra eguraldiaren araberakoa izango da. Neurketak 30 tantora jokatu dituzte. Ordezkoek jokatu ahal izateko bikotearen titular batek egon beharko du. Bestetik, bikote batek kale egin ez gero, partidua galdutzat emango zaio 30-0eko emaitzaz. Azkenik, finalerdietatik aurrera jokalariek txurritz jokatu beharko dute.

Orain arte jokatu dituzten partiduak honako emaitzekin erabaki dira: ostegunean, Goitia-Otermin 30 Lankuntza-Agote 15 eta Apeztegia-Maiza 30 Landa-Huegun 18. Ostiralean, berriz, Yugerros-Aldazabal 30 Lankuntza-Agote 21; Sarasua-Txapartegi 30 Balerdi-Artola 22; Lontxo-Nazabal 30 Bengoa-Bengoetxea 15. Hurrengo partidak astelehenean izango dira, Berazubian, 18:30ean; Lankuntza-Agote bikotea Agirre-Egilazen aurka, Lontxo-Nazabal Eizmendi-Arandiaren kontra eta Balerdi-Artola Bengoa-Bengoetxearen aurka ariko dira. Asteartean, berriz, 19:00etan izango dira, Yugerros eta Aldazabal Agirrerren eta Egilazen aurka eta Zabaleta eta Urdanpilleta Sarasuaren eta Txapartegiren aurka lehiatuz.

iragarki laburrak ▶

Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak, hezitzaileak. Lanpostu libreak: jantokiak, haur eskolak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonoan.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. Deitu ezazu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93 telefono zenbakira deitu.

Pecioak, ofizio langileak. Lanpostu finkoak: igeltseroak,

argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalberako. 1.200 euroko soldata hilabetean. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan lortzeko aukera, 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

TOLOSA ▶

Kanpotarren bisitak izan ditugu azokan aste honetan

Berrikuntza izan ziren Ibarako piperrak: 6 eurotan saldu ziren; arrakasta izan zuten

PABLO ALBERDI

Kanpotarren bisitak izan ditugu aste honetan. Uda delata turista ugari etortzen da eskualdera, eta herritarrekin batera girotu zuten eguerdira arteko azoka. Berrikuntza nabarmenak ikusi ahal izan ziren: Ibarako piparra, adibidez, 6 eurotan saldu zen, eta arrakasta handia izan zuen. Luzea da zegoen barazkien zerrenda: babak, ilarrak, tomatea, eskarola, porruak, azelgak, tipula...

Perretxiko eskaintza ere izan zen makala izan. Ia 100 kilo onddo, 40 kilo ziza, 40 kilo ziza hori eta 10 kilo gibelurdin.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Zintzilikotoa	2,40	6,00
Erromeroa	4,00	6,00
Lekak	0,35	0,40
Porrua	2,40	-
Gernikako piperrak	0,20	-

Bertako produktuak

Ardigazta	12,00	14,00
Arrautzak	1,30	2,10
Indiollarra	4,30	-
Tolosako babarrun	8,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Diliastak	2,40	-
Lebua	1,00	-
Ahuntz gazta (200)	3,00	-
Arrautzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Eskualdeko euskarazko egunkariak bere webgunean parte hartzeko aukera ematen dizu: inkestak eta eztabaidak aurkituko dituzu bertara sartuz gero, eta proposatuta dauden gaien gaineko iritzia eman ahal izango duzu. Tolosan berriki jarri duten bidegorriaren inguruko galdera duzu aste honetan: zer iritzi duzu bidegorriaren ibilbideari buruz?

MIREN ZEBERIO ▶ MUSIKARIA



O. ESKITXABEL

«Etorkizunean ez dut pentsatzen; iritsiko da iritsi beharrekoa»

Hari instrumentuetarako XII. Nikanor Zabaleta musika beka jaso berri du 21 urteko biolinjole tolosarrak

I. TERRADILLOS

Pasa den ekainaren 27an erabaki zuten Donostiako Koldo Mitxelena Kutxak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babes-ten duten harizko instrumentu-tistentzako zuzendua dagoen Nikanor Zabaleta XII. musika beka norentzat izango den aurren. Eta, hain zuzen, Miren Zeberio 21 urteko biolinjole tolosarrari suertatu zaio 12.000 euroko saria. Irabazlearen aurkezpena bihar bertan egingo dute 10:30ean Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.

Musikari gaztea goi mailako tituluduna da, eta beka hori Utrecht-eko Unibertsitateko Musika Fakultatean ikasten jarraitzeko baliatuko du. HITZAK tolosarra zoriondu nahi izan du, eta berarekin aritu da solasean irabazi berri duenaren inguruan.

Nola jaso duzu saria?

Lagun batek zoriondu ninduen eta horrela jakin nuen nik irabazi nuela saria. Sekulako poza hartu nuen, egunero ez baitira horrelakoak irabazten. Poza, eta tristura ere bai, nirekin proba egitera aurkeztu zirenetatik hiru lagunak direlako; haien-gatik pena ematen dit.

Ospatzeko betarik izan al duzu?

Lagun artean batetik, eta, senitartekoekin bestetik, izango dut irabazitakoa ospatzeko aukera.

Epaimahaiaren aurreko proba nola joan zen?

Beka eskatzeko proiektu bat aurkeztu behar duzu zertarako baliatuko duzun beka, non ikasteko, zein irakaslerekin... azalduz. Ondoren, 30 minutuz emanaldia eskaini behar duzu epaimahaiaren aurrean. Pianojole baten laguntzarekin kontzertu txiki bat eskaini nuen nik. Proba irekia zen, hau da, edozein joan zitekeen hura ikustera, eta nire kasuan lagunak joan ziren babesa ematera. Etxekoek ere lagundu ninduten, noski, baina ez bertatik, urduri jarriko lirarteke-eta.

Utrecht-en jarraitzeko aukera izango duzu, beraz, musika ikasketekin. Nolatan ekin diozu bizitzari bide horretatik?

Txikitatik hasi nintzen musika ikasten, izan ere, familian musikarekiko zaletasun handia egon da betidanik eta badirudi niri ere gauza bera gertatu zaidala. Batxilergoa egin nuen bitartean biolineko ikasketak bu-

rutu nituen. Orduan erabaki nuen musika ikasten jarraitzea. Horrela, Utrecht-eko Unibertsitateko Musika Fakultatean bi urtez ikasi dut eta lau maila dira denera, datorrenean, beraz hirugarren mailari ekingo diot.

Ikasketak bukatzean pentsatu al duzu zer egingo duzun edo egin nahiko zenukeen?

Musikarekin zerikusia duen zerbait egitea gustatuko litzaidake. Ikasketak burutzerakoan ere ez nengoen ziur non ikasiko nuen, eta esan daiteke txirripaz iritsi nintzela Utrecht-era. Eta orain ere ez dakit amaitzean non egongo naizen, ez nago ziur zein lan egitea gustatuko litzaidakeen; ikusiko dugu.

Musikaren bidetik ez bazen, zertan ariko zinen orain?

Uste dut artearekin zerikusia duen zerbaitetan ariko nintzatekeela.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburueterako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

GIZARTEA ▶



Herritarrak parte hartzen arau subsidiarioei buruz

Iñigo Terradillos ▶ Arau subsidiarioen inguruko Herritarren Partaidetzako Jardunaldiak izan ziren herenegun arratsaldean eta atzo egun osoan zehar Tolosako udaletxean. Antolatzaileen hitzetan, 30 lagun inguru bildu ziren bertan gai ezberdien gainean eztabaidatzeko —argazkian, herenegungo bilera—. NOELIA LATABURU



musutruk eraman



Hilabete honetan:
Joseba Samionandia
Tere Itasortza
Pablo Urtutia Jauregi
Mikel Reporatz
Eider Rodriguez
Aizpea Goenaga
Goizalde Landabaso
Pablo Telleria
Gontzal Ajote
Maider Lopez
Lolo Rico
Joseba Irazoki
Josu Chacra
Aingeru Epalza
Juarina Bajo Ullora
Lander Garro
Jakin
Zaki Erna
Mikel Mendibil
Pablo Gaztekerand...

948 22 71 25
telefonora deitu edo
nabarra@nabarrerria.com
posta elektronikora
idatzi, zure datuak utzi*,
eta Nabarra aldizkaria
bi hilabetez dohainik
jasoko duzu etxean

(*) Erreklamazioak, iruzkitasun eta telefonoak

NABARRA
Ezkerreko aldean: zuzendaria, goizeko 9:00etatik 12:00etara

kioskoetan saigai

Harpidetu zaitez:
948 22 71 25
nabarra@nabarrerria.com



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Festa Alternatiboen barruan hilaren 15ean egingo den bazkarirako txartelak salgai daude, betiko tabernetan, 5 eurotan.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek 635 00 94 96 telefono zenbakira deitu behar dute berriro tramitatzeko, datuak galdu egin baitira.

Tolosa. Tolosa CFko XXXVII. Paleta Txapelketa. Bihar, hiru partida: Lakunza-Agote / Agirre-Egilaz, Lontxo-Nazabal / Eizmendi-Arandia, Balerdi-Artola / Bengoa-Goikoetxea.

18:30ean hasita, Berazubi estadioko frontoian.

Tolosa. Aitzol Udal Euskaltegiak EGA ikastaro trinkoa antolatu du irailean. Izen-ematea hilaren 15a, ostirala, amaituko da, euskaltegian bertan (Pablo Gorosabel. 943 65 10 06).

Zizurkil. Udalak umorezko bakarriketa lehiaketa antolatu du. Lanek euskaraz, orijinalak eta 500-700 hitzekoak izan behar dute. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro herriko lehenak. Irailaren 15 arte eraman daitezke Aurrerako udal bulegoetara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Fernando Rojo tolosarraren eta Izarne Garmendia irurarraren Afrikako argazkiak, Jubilatuen tabernan.

Hernalde. Pepi Arrutiren olioak, Herriko Ostatuan ikusgai.

Tolosa. Malen Urtzelairen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

Tolosa. Xabier Galizaren akuarelak ikusgai dira Poxpolin enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

Bihar

Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Musika bidaia on

TOLOSA ▶ Iparraldeko Mixel Ducauk eta Caroline Phillipsek kontzertu ederra eskaini zuten herenegun, Gau Giro programaren barruan



Caroline Phillips eta Mixel Ducau herenegun gaueko kontzertuan eskaintzen, Plaza Berrian. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Bigarren emanaldia eskaini zuten Iparraldeko musikariek herenegun Plaza Berrian eta Gau Giro programako bigarren ekitaldia izan zen baita ere. Mixel Ducauk eta Caroline Phillipsek

osatutako Bidaia bikotea izan zen oraingoan saioaren arduraduna, eta Euskal Herriko txoko askotatik pasatu zen musika bidaia. Baita atzerriko zenbait tokitatik ere. Euskal doinu ezagun eta ez hain ezagun batzuk eskaini zizkion bikoteak plazan bildutako entzulegoari.

Errobi talde ospetsuaren sortzaileetako da Ducau eta ahotsaz aparte, kitarra, alboka, saxo sopranoa eta ttun-ttuna erabiltzen ditu. Phillips, berriz, Kalifornian jaioa da, Grezian eta Iranen jatorria duen familiar, baina urte batzuk badaramatza Iparraldean bizitzen.

Pianoa eta zanfoña erabiltzen ditu bere emanaldietan.

Jakina denez, Euskal Kultur Erakundea eta Tolosako Udala akordio batera iritsi ziren Iparraldeko hainbat musikariren kontzertuak programatzeko Tolosan. Sanjoanetan izan zen lehena, Jean Mixel Bedaxagar, Magali Zubillaga eta Philippe de Scurraren eskutik. Herenegungoan izan da bigarrena eta irailean 24ean Zuberoko kantak eta azaroan Umama taldea iritsiko dira. Iparraldeko kultur ekitaldiak Tolosara zabaltzea du helburu hitzarmen horrek, eta ondo ateraz gero jarraipena izatea espero dute bi aldeek.

Horrez gain, Gau Giro programan ere sartzen zen ekitaldia. Udan herrian gelditzen den jendeari kultur ekitaldiak eskaintzea du helburu programa horrek. Musika, dantza eta zinema emanaldiak izango dira uda osoan zehar.

Gau Gioren hurrengo saioa Gonzalo Tejada Trioren emanaldia izango da, datorren ostiral gauean, Fronton kafetegian. Tejadarekin batera, Iñaki Salvador eta Mikel Andueza musikari ezagunak ariko dira Bill Evans jazz pianojole ezagunari omenaldia eskaintzen. Kontzertu berezian.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Ioritz, Zorionak, pobolo! Bihar 4 urte! Asko maite zaitugu, Arratzaingo familia.



URTE ASKOAN

Ioritz (Tolosa), Bihar 4 urte. Zorionak senideen eta lagunren partetik.



ZORIONAK

Gorka (Alegia). Bihar 7 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Mirari Artola Gibelalde (Txarama). Gaur 2 urte. Zorionak, pittikina! Familia guztiaren partetik.



ZORIONAK

Letyami (Tolosa). Gaur 8 urte. Muxu bat ama, aita, amona, aitona eta familia guztiaren partetik.